# Arrats-eskaria

Arratsaldeko iruntz-itzalak
jaustorduan lur gañera,
ludi zakarrak izututa,
batu naz neure barnera.

Arrats bera sorgin onetan
entzun, Erregin lerdena,
biotzaren joan oyua,
oi, nire azken-arrena.

Auzoan zabilkidaz, Ama,
gaitzetik adiña urrindu,
maitasun-ego zuriz estal:
ni, ume, jagon nagizu.

Min-ezpata zear igaroz
biotz erruge yatzun ausi:
indazu, otoi, ene Ama,
zeure garra nigan josi.

Maite min nozu, aspalditan,
zure leraz dot biotza;
adi eidazu, Ama eder,
gaur arrastiko otoitza.

Gorde naizu, samin-Erregin,
zeure Ama-besoetan;
zaindu ni bular gañean,
nire babes zeu beti izan.